



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoak 17

Vitoria-Gasteiz, 17 de marzo de 2020

Ogasun eta Ekonomia

COVID-19AREN PANDEMIAREN ONDORIOZKO OSASUN LARRIALDI ADIERAZPENAREKIN ERLAZIONATUTAKO AURREKONTU NEURRIAK

Gobernu Kontseiluak **premiatzko** zenbait **neurri** onetsi ditu gaur, Covid-19aren pandemiak Euskadin izango dituen eragin ekonomiko izugarriak ahal den neurrian arintzeko. Xedea **berehala** erantzutea da, Eusko Jaurlaritzak bere esku dituen ekonomia eta giza baliabide guztiak krisi hau gainditzeko mahai gainean jarriko dituela bermatuz.

Eusko Jaurlaritzak berehala aplikatu behar dituen neurriak hauek dira:

1. **Covid-19 programa:** Hasieran 300M/€-ko aurrekontua duen eta, beharrezkoa izanez gero 500M/€-ra arte handitu daitekeen aurrekontu-programa berria. Diru-kopuru horiek diruzaintzako gerakinetatik eta aurrekontu-kredituen soberakinetatik etorriko dira.
2. **Finantzen Euskal Institutuaren finantzaketa lerroa:** aste honetan aktibatuko da, 25M/€-ko kopuruarekin, Euskadiko produkzio-sareari behar duen likidezia emateko, enpresa txikiei eta ertainei eta autonomoei, batez ere.
3. **Zirkulatzailerro berria:** aurrekoarekin erlazionatuta, ahalik eta epe laburrean, EA Eren abalak izango dituen zirkulatzailerroaren 500M/€-ko finantzaketa-lerroak egituratuko dira, zero kostuan, bost urterako, urtebeteko gabealdearekin, Euskadin jarduten duten banku erakundeekin eta Elkargirekin lankidetzan.
4. Aurrerakin itzulgarrietan, maileguetan edo abaletan oinarritutako **Finantza-baldintzak malgutzea, birfinantzatzea eta egokitzea, GAUZATU, BIDERATU, INDARTU** programetan eta beste batzuetan.

Horrela, helburua, ekonomia arloan **jarduteko hiru lehentasun** ezartzea da, horietako bakoitzean neurri jakin batzuk hartuta, aurretik aipatutako baliabideak erabilia:

I. EUSKAL OSASUN SISTEMA INDARTZEA

- Sendagaiak hornitzea eta ekoiztea, eta osasun-materiala eskuratzea.
- Prebentziozko arreta eta telefono bidezko aholkularitza indartzea.
- Ez ohiko neurriak etxeko laguntza-arretan aritzen diren osasun arloko langileak indartzeko.
- Osasun-zentroetan arreta emateko gune berriak egokitzea.

II. ENPRESEI ZUZENDUTAKO NEURRIAK

- Zirkulatzailerroa finantzatzeko 500 milioi euroko lerroa, enpresa txikiei eta ertainei, profesionalei eta autonomoei zuzenduta.
- Laguntzak enpresentzat, erakundeetan koronabirusa zabal ez dadin.
- Ekipo eta erreminta teknologikoak eskuratzeko laguntzak.
- Zailtasunak dituzten enpresentzako programa-zuzkidurak zabaltzea.

III. PERTSONEI ETA FAMILIEI ZUZENDUTAKO NEURRIAK

- Laneko eta familiako bizitzaren kontziliaziorako Programaren aplikazio zabala, jardunaldi murrizketarako laguntzekin, honetarako:
 - i. Adingabeen eta koronabirusak kutsatutako edo horren ondorioz isolatutako pertsonen zainketarako.
 - ii. Ikastetxeen eta eguneko egoitzen itxieraren ondorioak jasaten ari diren adingabeen eta adinekoen zainketarako.
- Lan jardunaldiaren malgutasuna bultzatzea, laguntza publikoekin.

Neurri horiek guztiak gainerako erakundeek aplikatzen dituztenen **osagarri** dira, ezin bestela izan, koronabirusaren aurka **osasunaren eta ekonomiaren aldetik egiten ari garen borrokari** aurre egiteko. **Laguntza fiskalei**, hau da, atzerapenei, salbuespenei eta luzapenei dagokienez, bai enpresen eta autonomoen betebeharrak fiskalei, bai tokiko tributuei dagokienez, Jaurilaritzak, hiru Foru Aldundiek eta Eudelek koordinatuta jardungo dute.

Osasuna

KORONABIRUS BIDEZKO KUTSATZEAK 765 DIRA EUSKADIN, BESTE 38 KASU BERRI ERREGISTRATU ONDOREN

- Osasun Sailak eta Osakidetzak nabarmendu dute ospitale-farmazian ematen diren tratamenduen jarraitutasuna guztiz bermatuta dagoela, eta gomendatzen dute ez joatea zerbitzu horretara, hitzordua izan ezean, pertsonen pilaketa saihesteko

Euskadin **beste 38 COVID-19 kasu** erregistratu dira. Beraz, **kutsatutakoak guztira 765 dira**. Horietatik 362 ospitalizatuta daude. Hildakoen kopurua 36 pertsonatan mantentzen da —ez dago heriotza berririk—. Hala ere, adierazi behar da gaurtik aurrera ematen diren datuak bezperako 20:00ak artekoak direla (eta ez gaurko goizeko 8ak artekoak). Horrela, Osasun Ministerioaren metodologiarekin bat egiten da. Lurraldeka, honako hau da banaketa:

- **GIPUZKOAN** 90 positibo daude, eta horietatik 32 ospitalizatuta daude.
- **BIZKAIAN** 201 lagun daude kutsatuta, horietatik 96 ospitalizatuta.
- **ARABAN** 474 kasu zenbatu dira, eta horietatik 234 ospitalizatuta daude.

Martxoaren 17ko eguneratzea	Kasu positibo berriak	Pertsona ospitalizatuak	Hildako pertsonak	Kasu positiboak GUZTIRA
ARABA	30	234	25	474
BIZKAIA	7	96	6	201
GIPUZKOA	1	32	5	90
EAE GUZTIRA	38	362	36	765

FARMAZIAREN ARLOKO GOMENDIOAK

Bestalde, ospitaleetako farmazia-zerbitzuetan sendagaiak jaso ohi dituzten pertsonen tratamenduen jarraitutasuna erabat bermatuta dagoela azpimarratu dute Osasun Sailak eta Osakidetzak. Hala, zerbitzu horietan

pertsona-pilaketarik egon ez dadin, **ez joateko** deia egin dute, **hitzordua izan ezean**.

Farmazia komunitarioaren esparruan, pertsonen joan-etorria murrizteko helburuarekin ere, guztiz beharrezkoa denean bakarrik joatea eskatzen du Osasun Sailak.

HERRITARREN LANKIDETZA

Osasun Sailak **herritarren lankidetzarako** deia berretsi du, **eta beharrezkotzat jotzen du urruntze sozialeko neurriak betetzea, bereziki leku publikoetan, higiene-neurriak hartzen jarraitzeaz gain:**

- **Eskuak arreta handiz garbitzea**, eta are gehiago arnas sintomak dituztenek. Ez dugu ahaztu behar kutsatzeen % 95 pertsonak sintomak dituenean gertatzen direla.
- **Gainazalak garbitzea**.
- Pertsonen artean gutxienez metro bateko tarteari eustea.
- **Eztul egitean**, ukondoarekin edo erabili eta botatzeko zapi batekin estaltzea.
- **Sintomak** (sukarra, arnas sintomak) **dituztenek** ez dute egon behar adinekoekin edo gaixotasun kronikoak dituztenekin kontaktuan, ezta leku publiko eta jendetsuetan ere.

**Informazio gehiago Sailaren web-orrian: <http://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>*

Hacienda y Economía

MEDIDAS PRESUPUESTARIAS EN RELACIÓN CON LA DECLARACIÓN DE EMERGENCIA SANITARIA POR LA PANDEMIA COVID-19

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una serie de **medidas urgentes** para paliar, en la medida de lo posible, las enormes afecciones económicas que va a tener la pandemia del Covid-19 en Euskadi. Se trata de responder con **inmediatez**, garantizando que el Gobierno Vasco pondrá a disposición de la superación de esta crisis todos los medios económicos y humanos a su alcance.

Las medidas a adoptar de forma inmediata por el ejecutivo vasco son:

1. **Programa Covid-19:** nuevo programa presupuestario dotado inicialmente con 300M/€ y ampliable hasta los 500M/€ en caso de ser necesario, procedentes de remanentes de tesorería y excedentes de créditos presupuestarios.
2. **Línea de financiación del Instituto Vasco de Finanzas:** con una cuantía de 25M/€, se activará esta semana, de cara a facilitar la necesaria liquidez al tejido productivo vasco, sobre todo centrado en PYMES y autónomos.
3. **Nueva línea de circulante:** unido a lo anterior, en el plazo más breve posible, se articularán líneas de financiación de circulante con avales de la CAE por importe de 500M/€ a coste cero a cinco años con uno de carencia, en colaboración con las entidades bancarias que tienen actividad en Euskadi y Elkargi.
4. **Flexibilización, refinanciación y adaptación de las condiciones financieras** que consistan en anticipos reintegrables, préstamos o avales en programas como **GAUZATU, BIDERATU, INDARTU** y otros.

De esta forma, se trata de establecer **tres prioridades de actuación** en el ámbito económico, con distintas medidas concretas en cada uno de ellos, empleando los recursos anteriormente citados:

IV. REFUERZO DEL SISTEMA SANITARIO VASCO

- Suministro y producción de medicamentos y adquisición de material sanitario.
- Refuerzo atención preventiva y asesoramiento telefónico.
- Medidas extraordinarias de refuerzo personal sanitario para atención asistencial domiciliaria.
- Habilitación de nuevos espacios de atención en centros sanitarios.

V. MEDIDAS DIRIGIDAS A LAS EMPRESAS

- Línea de financiación de circulante a Pymes, profesionales y autónomos de 500 M€.

- Ayudas a las empresas para evitar la propagación del coronavirus en las organizaciones.
- Ayudas para la adquisición de equipos y herramientas tecnológicas.
- Ampliación de dotaciones de programas para empresas en dificultades.

VI. MEDIDAS DIRIGIDAS A LAS PERSONAS Y LAS FAMILIAS

- Aplicación extensiva del Programa de conciliación vida laboral y familiar con ayudas de reducción de jornada para:
 - i. Cuidado de menores y personas contagiadas o aisladas por coronavirus
 - ii. Cuidado de menores y personas mayores afectadas por el cierre de centros educativos y residencias de día.
- Incentivar la flexibilización de la jornada laboral con ayudas públicas.

Todas estas medidas son **complementarias** a las del resto de instituciones, como no puede ser de otra manera, para enfrentar esta **batalla sanitaria y económica** contra el coronavirus. En materia de **ayudas fiscales** como aplazamientos, exenciones y moratorias, tanto en lo que afecta a obligaciones fiscales de empresas y autónomos, como en lo que hace referencia a tributos locales, se actuará de forma coordinada entre el Gobierno las tres Diputaciones forales y Eudel.

Salud

LOS CONTAGIOS POR CORONAVIRUS EN EUSKADI ASCIENDEN A 765 TRAS REGISTRARSE 38 NUEVOS CASOS

- El Departamento de Salud y Osakidetza subrayan que la continuidad de los tratamientos dispensados en la farmacia hospitalaria está plenamente garantizado, y recomiendan no acudir a ese servicio salvo que se disponga de cita, para evitar acumulación de personas

En Euskadi, se han registrado 38 **nuevos casos** de COVID 19. Con lo que la **cifra total de contagios es de 765 positivos**. De ellos, 362 permanecen hospitalizados. La cifra de personas fallecidas se mantiene en 36 personas, sin nuevas muertes; no obstante, hay que señalar que a partir de hoy los datos que se ofrecen abarcan hasta las 20 horas de la víspera (y no hasta las 8 de la mañana de hoy), unificando así la metodología con la del Ministerio de Sanidad. Por territorios, la distribución es la siguiente:

- En **GIPUZKOA**, el número de positivos es de 90, de los que 32 están ingresados.
- En **BIZKAIA**, la cifra asciende a 201 personas, 96 de ellas hospitalizadas.
- Y en **ARABA**, son 474 los casos contabilizados, de los que 234 permanecen hospitalizados.

Actualización 17 marzo	Nuevos casos positivos	Personas hospitalizadas	Personas fallecidas	TOTAL casos positivos
ARABA	30	234	25	474
BIZKAIA	7	96	6	201
GIPUZKOA	1	32	5	90
TOTAL EUSKADI	38	362	36	765

RECOMENDACIONES ÁMBITO DE FARMACIA

Por otra parte, el Departamento de Salud y Osakidetza han subrayado que la **continuidad de los tratamientos de aquellas personas que habitualmente recogen sus medicamentos en los servicios de farmacia de los hospitales está plenamente garantizada**. Así, y en aras a evitar acumulación de personas en estos servicios, hace un llamamiento a **no acudir salvo que se disponga de cita**.

En el ámbito de la **farmacia comunitaria**, y también con el objetivo de reducir el tránsito de personas, el Departamento de Salud pide que se acuda solo en casos de estricta necesidad.

COLABORACIÓN CIUDADANA

El Departamento de Salud reitera su llamamiento a la **colaboración ciudadana**, y **considera necesario las medidas de distanciamiento social, especialmente en los lugares públicos, además de seguir adoptando medidas de higiene:**

- **Extremar el lavado de manos**, y más aún quienes tienen síntomas respiratorios. No debemos olvidar que el 95% de los contagios se producen cuando la persona presenta ya síntomas.
- **Limpiar las superficies.**
- Mantener al menos un metro de distancia entre las personas.
- **Taparse al toser** con el codo o con un pañuelo desechable
- Las **personas con síntomas** (fiebre, síntomas respiratorios) no deben estar en contacto con personas mayores o con enfermedades crónicas, o en sitios públicos y concurridos.

Más información en la **página web del departamento:*
<http://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>

